



 **GARAPEN**  
JASANGARRIRAKO  
HELBURUAK




Ikas-egoerak

# Bihurtu dezagun biral bakea

**1. eta 2. BATX.**





**Bihurtu dezagun biral bakea** © SED GGKE 2026k garatutako hezkuntza-proposamena da. Material honek baimen hau du: Creative Commons CC BY-NC-ND 4.0

Egileak: Ana Martín Bautista, Cristian Gómez Martín, Florencia Agustina Bulacio Vaira, Izaskun Adot Larumbe eta Tania Días Basurdo, SED GGKEko HGHE batzordeko kideak, Ana Fernández Moya proiektuen koordinatzailearen eta Beatriz de la Banda Velázquez batzorde iraunkorreko kidearen laguntzarekin.

Berrikuspen teknikoa: Nuria Salvatierra Villada, Jesús Rojas Aguilar, Rocío Rodríguez Rueda, Esther Lechado Hurtado, Coral de la Camara García, Teresa Rodríguez Pérez de Ayala, Isabel de la Cruz Sierra, Agnola Soler Ortiz, Inmaculada LLacer Moreno Auriolés, M<sup>a</sup> del Carmen Millán Herrera, Sevillako Maristen ikastetxeko irakasle taldeko kideak.

Diseinuak: Zootropo Studio.

Maketazioa: Victoria Daima, SED GGKEko komunikazio-arduraduna.

## 1. IE: “Bihurtu dezagun biral bakea: Gorrotoa hackeatuz”

### GJHarekiko lotura




Gizarte baketsu eta inklusiboak sustatu beharra dagoela ikusaraziko da, munduaren egungo panoramaren aurrean: 37 gatazka armatu daude, eta zibilen artean heriotza-tasa % 22 handitu da.

### Testuingurua

“Intolerantziaren digitalizazioari” eta sare sozialetako polarizazioari helduko diegu, Espainiako gazteen % 83ri eragiten baitiote.

*Iturria: “Bihurtu dezagun biral bakea” kanpainako oinarritzko dokumentua.*



### Helburuak

Gida honetan biltzen diren jardueren bidez, kanpainako edukiak lantzeko proposamenak egiten dira. Helburu hauekin:

- Algoritmoek eta iragazki-burbuilek nola lan egiten duten ulertzea: sare sozialek haserrea, beldurra edo aurrez aurrekoak nola indartu ditzaketen ikusarazi nahi zaie gazteei, eta polarizazio-dinamikak eta alborapenak ezagutzeko gai izan daitezen lortu nahi da.
- Parte-hartze digital etiko, kontziente eta arduratsuagoa bultzatzea: jarduera honetan, lortu nahi dena da ikasleek, gorrotoa hautemateaz gain, errespetuz, sendo eta kritikoki erantzuten ikastea (indarkeriarik gabeko komunikaziorako tresnak), eragotzi nahi dituzten borroka-dinamika horiek errepikatu gabe.
- Narratiba alternatiboak edo kontranarratibak eta bakea sustatzen duten edukiak sortzeko gaitzea ikasleak: zaintzaren etikan eta indarkeriarik gabeko komunikazioan oinarritutako mezuak sortzeko gai izatea.

## Curriculumeko elementuak

### Oinarrizko kompetentziak:

- HKK (hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia): indarkeriarik gabeko komunikazioaren (IGK) eta narratiba alternatibo digitalaren bidez.
- KD (kompetentzia digitala): algoritmoen alborapenak identifikatzea eta eduki etikoak sortzea sareetan.
- KPSII (kompetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa): gatazken kudeaketa baketsua eta norberaren zaintzaren ebaluazioa.
- HK (herritartasunerako kompetentzia): esparru arauemailea eta nazioarteko errealitate geopolitikoak ulertzea.



### Oinarrizko jakintzak



- **Bloke teorikoa:** bake positiboa (justizia sozialaren presentzia) vs bake negatiboa (gerrarik ez izate hutsa). "Eraldaketaren lupa", Johan Galtung eta John Paul Lederach-ena (gatazkaren egiturazko kausen analisia).
- **Bloke arauemailea:** esparru konstituzionala eta LOPIVI (Lege Organikoa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena).
- **Bloke digitala eta generoari dagokiona:** iragazki-burbuilen funtzionamendua (algoritmoak). Genero-arrakalaren eta gatazken aurreko zaugarritasunen arteko bidegurutzea.

### Ebaluazio-irizpideak

Alborapen algoritmikoak identifikatzeko eta indarkeriarik gabeko komunikazioa aplikatzeko ikasleak zer gaitasun duen.

## Jardueren sekuentzia



Hiru faseko ikasegoera bat proposatzen dizuegu, egun seinalatu batzuetan lantzeko, hala nola SEDen Egunean, Indarkeriarik Gabeko Eskola Egunean (urtarrilaren 30a), Internet Seguruaren Egunean (otsailaren 9a) edo beste egun batean.

## Aktibazioa

**“Bihurtu dezagun biral bakea” bideoa** ikusiz hasiko gara, ikasleek euren errealitatetik abiatuta egin dezaten gogoeta.

## Gorrotoaren makina

Algoritmoek aurrez aurrekoak saritzen dituztela erakusten duen analisia, indarkeriarik gabeko komunikazioa ardatz izanda nola parte hartu dezakegun erakusten duena.

## Analisia

## Aplikazioa

### Bakearen hackerrak: azken produktua sortzea

Ikasleari horren aurrean zerbait egiteko gonbita egiten zaio, infografiak edo bideo laburrak eginez, etab.

## A. fasea: aktibatzea

### Helburua

Sare sozialetako gure informazio-kontsumoaz gogoeta egitea.

### Baliabideak

- Proiektagailua (ikasgelan bideoa ikusteko).
- Banakako lanerako fitxa.

### Jarduera

Bideoa jarri ondoren, lanerako fitxa banatuko dio irakasleak ikasle bakoitzari (ikusitako ondoren), gero elkarrekin debatea egiteko.

### Debaterako galderak


Zer gai kontsumitzen ditugu? (Gaiak botako dira ideia-jasa baten bidez, ikasleek parte hartu dezaten). Gero, kontragaldera bat: **Zer gai falta dira?** Gomendiozko algoritmo eta informazio-burbuila edo iragazki-burbuila kontzeptuak azaltzen hasiko da.

Gai horien inguruko begirada nolakoa da? (idatziz jasoko dira adierazitako ikuspegiak). Eta gero, kontragaldera egingo zaie, deskribatutako adibideak hartuta: **Zer ikuspegi falta dira?**

Nola hartzen dugu parte guk ingurune digitalean? (Interakzioan aritzen gara edukiak partekatuz, iruzkinak eginez edo erantzunez? Kasu handirik egin gabe egiten dugu aurrera? Salatzen dugu edukia?)

**MIGRAZIOA**  
**DEMOKRAZIA**  
**POBREZIA**  
**FEMINISMO**

## Banakako fitxa



|                                                                                                                                                                                   |  |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--|
| <p><b>Sare sozialetan gabiltzanean, zer gai mota iristen zaizkigu behin eta berriro? Zerrendatu gaur egungo gaien artean zure zerrendako lehen postuetan dauden bost gai.</b></p> |  |
| <p><b>Zer ikuspegitatik heltzen diete gai horiei plataformetan? (Gorrotzko begirada batetik edo bakezko begirada batetik?)</b></p>                                                |  |
| <p><b>Zer eduki motak kezkatzen edo larritzen gaituzte? Zergatik?</b></p>                                                                                                         |  |
| <p><b>Identifika ditzakegu mezu horietan elementu komun batzuk? (Esate baterako, hizkuntza sexista edo diskriminatzailea, estigmatizazioa, orokortzea, etab.)</b></p>             |  |
| <p><b>Zer jokabide hautematen ditugu erabiltzaileen edo komunitateen artean gai horien inguruan?</b></p>                                                                          |  |
| <p><b>Nola hartzen dugu parte horien aurrean?</b></p>                                                                                                                             |  |

## B. fasea: analisia

### Helburua

Gorrito digitalaren eta mundu errealeko indarkeriaren arteko loturaz jabetzea: gai jakin batzuez dugun pertzepzioan algoritmoek nola jokatzten duten ikustea, eta benetako bizimoduan pertsona edota kolektibo jakin batzuei edo gizartearen zati bati begiratzeko gure moduan horiek zer eragin duten jabetzea.

### Jarduera

Sare sozialetan algoritmoek eduki gatazkatsuak nola saritzen dituzten (% 70 bizkorrago partekatzen dira) eta "iragazki-burbuilak" nola sortzen dituzten ikertzea.

*Informazioa kontsultatzea hemen: Kanpainaren oinarrizko dokumentua.*

### "Gorritoaren makina" jarduera (algoritmoak eta iragazki-burbuilak)

1. Gune teoriko-praktikoa: Zergatik da errentagarria gorrotoa? (25 min)

Azaldu labur-labur plataformek gure arreta atxiki nahi izaten dutela (engagement). Atxikimendu handiena duten emozioak haserrea, beldurra eta amorrua dira.

**Algoritmoak ez du ez moralik, ez etikarik, audientzia baino ez du nahi:** eduki batek iruzkinak eta interakzioak sortzen baditu, erabiltzaileen interesen arabera zabaltzen da, kolektibo bati edo gizartearen zati bati kalte egiten zaion, izan daitekeen audientziak emozio negatiboak sortzen dituen edo, are okerrago, edukia egiazkoa edo faltsua den kezkatu gabe.


Zergatik da gehien zabaltzen den edukia haserrerik handiena eragiten duena?

Gaur egun, erabiltzaileek joera handiagoa dutelako amorrua ematen duen zerbaiti buruz iruzkinak egiteko, ondo sentiarazten dituen zerbaiti buruz jarduteko baino. Kontsumitzaile eta ekoizleen jokabideari jarraiki, haserrea pizten duten edukiak saritzen ditu algoritmoak. Horregatik, **oinarri-oinarrizkoa da edukiak biral bihurtzeko pertsonak parte-hartzea. Zer jarduerak lagundu diezagukete sare sozialetan bakea biral bihurtzen?**

Gero, antolatu ikasleak taldeka, alborapenak aztertzeko (ikus ondoren datorren fitxa): jendea "harrapatzeko" zer estrategia erabiltzen diren identifikatu behar dute ikasleek; izenburu alarmistak erabiltzen dira?, errudunak bilatzen dituzte?, kolektibo bat deshumanizatzen dute?

### 3. Saioaren emaitza (15 min)

- Entregatzekoa: talde bakoitzak eskema labur bat edo mapa bisual bat sortuko du, honako hau azaltzeko. **"Gorrotoaren clickbait zikloa" (Haserrarazteko estimulua – Erabiltzailearekiko interakzioa – Algoritmoaren saria – biralizazioa).**



## Gorroto-diskurtsoak edo albiste faltsuak?

SHARE

**Ez dute gerra batetik  
ihesi datozen pertsonen  
itxurarik.**



**Lapurretei buruzko albisteak dauden bakoitzean,  
talde berekoak dira beti lapurrak. Noiz arte  
jarraitu behar dugu itxurak egiten, ezer  
gertatuko ez balitz bezala? Kolektibo batzuk eta  
gure bizimodua ez dira bateragarriak.**



**Gerraren alderdi bat baino ez  
dute erakusten komunikabideek,  
manipulatu nahi gaituztelako.**



**Institutuan aniztasunari buruzko jarduerak  
antolatzen dituzten bakoitzean, okerrago  
prestatuta irteten dira ikasleak. Irakasgai  
garrantzitsuetan buru-belarri ibili  
beharrean, pentsamendu mota bat ezarri  
baino ez dute egin nahi.**



**Hemen beren herrialdean  
baino hobeto bizi direlako  
etortzen dira errefuxiatuak.**



**Talde horrek oso jokalaria onak ditu,  
baina horietako asko ez dira  
benetan herrialde horretan jaioak.**



**Bideo horrek argi eta garbi  
erakusten du zer gertatu zen.  
Zabaldu, argitalpena kendu  
aurretik.**



**Errefuxiatuek arriskuan  
jartzen dute gure  
segurtasuna.**



**Jada ezin da ezer esan, segituan  
mintzen dira. Kolektibo batzuek beste  
batzuek baino eskubide gehiago  
dituzte. Horiek dira benetako  
pribilegiadunak.**



**Jarduera honetan ageri diren mezuak fikziozkoak dira, eta hezteko xedez landu dira.**

## Irakaslearentzako fitxa

SHARE

### 1. kasuaren analisisia

**Diskurtso faltsua:** errefuxiatuak itxura jakin batekin lotzen ditu.

**Gorroto-diskurtsoa:** estigmatizazioa, eta gatazkaren larritasuna nahiz herritarrei jasanarazitako ondorioak ez ikustea.

### 2. kasuaren analisisia

**Diskurtso faltsua:** ebidentziarik gabe darabil "beti". Iritzi bat egitate bat balitz bezala aurkezten du.

**Gorroto-diskurtsoa:** delinkuentzia identitate batekin lotzen du. Amorrua eta haserrea hauspotzen ditu. Haustura eragiten du.

### 3. kasuaren analisisia

**Diskurtso faltsua:** prentsa osoarekiko konfiantza falta erabatekoa erakusten du. Historikoki beti izan dira berri faltsuak, edo clickbait bila edo berria lehenengo eman nahian itsututa ibili diren komunikabideak; baina horrek ez du esan nahi joera horiek lanbide osoa edo gizarte demokratiko bateko komunikabide guztiak hartzen dituztenik. Egiaztatutako informazioa baztertzeko gonbita egiten du.

### 4. kasuaren analisisia

**Diskurtso faltsua:** iritzi bat egia absolutu bat balitz bezala aurkezten du.

**Gorroto-diskurtsoa:** gizartearen zati baten bazterketa bultzatzen du, eta haserretzeko gonbita egiten. Dilema faltsu bat planteatzen du: edo aniztasuna edo hezkuntza.

### 5. kasuaren analisisia

**Diskurtso faltsua:** lekualdatzeko arrazoiak sinplifikatzea da. Gerrak, jazarpenak, giza eskubideen urraketak ez ikustea edo ezkutatzea esan nahi du.

### 6. kasuaren analisisia

**Gorroto-diskurtsoa:** pertsonen estigmatizazioa. Bereizkeria indartzen du.

### 7. kasuaren analisisia

**Diskurtso faltsua:** bideo bakar bat ez da inoiz aski. Testuingurutik ateratako zerbait izan daiteke. Ez du iturririk aipatzen. Hizkera alarmista. Berehala partekatzeko deia egiten du.

### 8. kasuaren analisisia

**Gorroto-diskurtsoa:** beldurtzea du xede. Deshumanizazioa.

### 9. kasuaren analisisia

**Gorroto-diskurtsoa:** talde bat mehatxu gisa aurkezten du. Igorlea biktimia bihurtzen du. Hartzaileak haserrarazi nahi ditu.

| Analisirako fitxa | Gorrito-diskurtsoa, albiste faltsua, edo biak? | Zer eragin nahi du? | Zer elementuren bidez? | Zer ondorio lituzke mezua partekatzeak? |
|-------------------|------------------------------------------------|---------------------|------------------------|-----------------------------------------|
| 1. kasua          |                                                |                     |                        |                                         |
| 2. kasua          |                                                |                     |                        |                                         |
| 3. kasua          |                                                |                     |                        |                                         |
| 4. kasua          |                                                |                     |                        |                                         |
| 5. kasua          |                                                |                     |                        |                                         |
| 6. kasua          |                                                |                     |                        |                                         |
| 7. kasua          |                                                |                     |                        |                                         |
| 8. kasua          |                                                |                     |                        |                                         |
| 9. kasua          |                                                |                     |                        |                                         |

## C fasea: Ekintza

### Helburua

- Bakerako gaitasunak lantzea (indarkeriarik gabeko komunikazioa), eta edukiak sortzea, "Bihurtu dezagun bakea biral" kanpainaren esparruan.
- Herritarren parte-hartze arduratsua eta gizartean eragiteko bideak indartzea.

### 1. zatia: IGK gimnasioa

Marshall Rosenberg-en eredua (IGK) ebaluazioa behaketatik bereiztean datza, eta gertatzen zaiguna argi eta garbi adieraztean.

- Erakutsi arbelean sare sozialetan ohikoa den iruzkin oldarkor bat (adibidez, "Ez dakizu ezer, kakati baldarra, ez daukazu ideiarik ere munduan gertatzen denaz, itxi ahoa").
- Erronka: galdetu ikastaldeari: zuen ustez, ase gabeko zer behar dago amorru horren atzean? Azaldu gorroto-diskurtso ororen atzean beldurra, frustrazioa edota nonbaiteko kide sentitzeko beharra egon ohi direla.


### 2. Gune praktikoa: IGKren lau pausoak (25 min)

Azaldu ikasleei zein diren entrenatu beharreko lau osagai nagusiak:


- Behaketa: gertaerak azaltzea, diren direnean, bai eta helburuak ere, iritzirik eman gabe eta etiketarik jarri gabe (adibidez, "Ikusi dut nire iruzkinari letra larriz eta erdeinuzko hitzekin erantzun diezula").
- Sentimendua: ekintza horrek nola sentiarazten gaituen azaltzea, "ni" horretatik, bestea errudun bihurtu gabe (adibidez, "Frustratuta sentitzen naiz, eta eraso egiten zaidala sumatzen dut").
- Beharra: erantzuna eman ez zaion giza behar unibertsala identifikatzea (adibidez, "Elkarrekin errespetuz eta segurtasunez hitz egitea behar dut").
- Eskaera: ekintza zehatz eta bidergarri bat adieraztea, modu positiboan (adibidez, "Prest egongo zinateke artikulu horretako datu bati buruz eztabaidatzeko, irainik erabili gabe?").

Zenbait pertsonaia historiko eta garaikide ekarri aztertzeke, errealitate kultural eta geografiko askotakoak eta askotariko gaitasunak dituztenak (ikusi Malala Yousafzai edo Nelson Mandelaren fitxak). Erreferente horiek argi eta garbi erakusten dute bakearen kontzeptua ez dela kontzeptu teoriko elitista bat, edonoren esku dagon konpromiso sozial bat baizik; gauzagarria baita edonorentzat, berdin du zer jatorri edo abiapuntu duen.

Talde-lana: banatu sare sozialetako gorroto-iruzkinen antzekoak dituen fitxa. Talde bakoitzak erantzuna idatzi behar du, lau pausoen formula zehatz-mehatz betez.



## Indarkeriarik gabeko komunikazioaren ereduak



A

**IREKI BEGIAK**

**Gorrito-diskurtso bati aurre egin behar diozunean, egin geldiune bat, eta pentsatu:**

Zer esan nahi du eduki honek? Informazioa da, edo iritzia? Mezu honek pertsona bati edo talde bati eraso egiten dio, estigmatizatu egiten du?



B

**BILATU ITURRI BATEAN BAINO GEHIAGOTAN**

**Ez hartu kontuan ikuspegi bakarra, bilatu iturri gehiago:**

Nondik dator mezua? Informazio guztia daukat, edo edukia editatuta dago eta kontakizunaren zati bat baino ez dut ikusten? Badago beste iritzirik gai honetaz?



C

**ZABALDU BAKEA**

**Ez partekatu gorrotoa, egin biral bake-mezuak:**

Zer eduki dira nire interesekoak, munduaz ikuspegi kritiko eta positibo bat ematen didatenak? Zer mezu eraiki ditzaket besteen iritzia errespetatuz neurea emateko?

Ingurune digitalean eta mundu errealean parte hartzen dugunez, zer egin behar dugu gorrotozko mezu baten aurrean?

1

**Gertatzen ari dena deskribatu (epaitu gabe), eta nola sentiarazten nauen adierazi.**

2

**Zer den garrantzitsua identifikatu: errespetua, berdintasuna, guztion eskubideak, ahotsen aniztasuna, elkarriketa.**


3

**Errespetua, bakezko bizikidetzak, gai baten inguruko ahotsen aniztasuna eta pertsona guztientzako ingurune seguru eta inklusiboak izatea sustatzen duten aukerak eta eskaerak proposatu.**



## **Malala Yousafzai: bakea, gaztetasunaren, identitatearen eta hauskortasunaren begietatik**

- Ikuspegi inklusiboa: lorpen historikoak urruneko zerbait balira bezala ikusten dituzte ikasleek. Malalaren kasuak erakutsiko die nerabe bat, muturreko zapalkuntza-egoera batean, baliabide instituzionalik gabe eta zuzenean eraso fisiko bat jasanda ere, gai dela bere ahotsa altxatzeko, tresna bakar gisa hitza erabilita.
- Ikasgelan aplikatzea: NBE en eman zuen hitzaldia aztertuko da. Ikasleak ahalduzko erabiliko da, argi erakusteko adina, generoa edo jatorri geografikoa ez direla oztopo herritartasun aktiboa lantzeko. Lotuta dago, zuzen-zuzenean, “txerto digitalekin”: sendotasun osoz eta bakez erantzutea etsaitasunari eta indarkeriari.



## **Nelson Mandela: bakea, erresilientziaren eta justizia errestituatiboaren begietatik**

- Ikuspegi inklusiboa: bizitza osoan zehar gatazka aldatzeko egindako ahaleginaren adibide da Mandela, erakutsi baitzuen bakea ez dela tentsiorik gabeko egoera (bake negatiboa), justiziaren eta adiskidetzaren etengabeko bilaketa baizik (bake positiboa). Haren eredua funtsezkoa da “bitartekotza” “ahuleziarekin” eta “mendekotasunarekin” nahasten duten ikasleekin lantzeko.
- Ikasgelan aplikatzea: 27 urte kartzelan pasatu ostean landu zuen adiskidetze-politika aztertuko da, mendekuaren eta aurkaria suntsitzearen aurrean elkarrizketa eta komunitatearen erreparazioa nola lehenetsi zituen ikusteko. Baliagarria da hori ikasleen kanpainako “zaintzaren etikarako” euskarri teoriko gisa: arrazakeria gorroto-diskurtso berririk sortu gabe edo bazterketa-dinamikarik gabe desmuntatzen ikastea.
- Hurbilketa honen bidez, erreferenteen azterketa ez da ulermenean oinarritutako irakurketa huts bat; motibazioa indartzen duen euskarri sendo baterako estrategia bat da, eta ikasleei erakusten die edonor izan daitekeela egoera bakearen bidetik aldatzeko eragile aktibo bat, bakoitzaren errealitatea eta aniztasuna direnak direla ere.

**Gidatutako txantiloia**



| Kasuak                                                                                                                                                                                     | Zer da ikusten dudana?<br>(Egintza) Nola<br>sentiarazten nau ikusten<br>dudan horrek? (Emozioa) | Zer behar dut? | Zer eska dezaket?<br>Nola eskatuko dut?<br>(Infografia, bideoa,<br>etab.) |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------|---------------------------------------------------------------------------|
| “Ezjakin kuadrilla, alfer<br>taldea! Ez dakizue,<br>aztarrenik ere ez, zer den<br>lan egitea. Interneten<br>kexaka ibili, besterik ez<br>duzue egiten. Kristalezko<br>belaunaldi inutila!” |                                                                                                 |                |                                                                           |
| “Ikusi al duzue zer argazki<br>igo duten? Hau lotsa!<br>Aizue, norbaitek esan<br>beharko lieke uzteko,<br>barregarri gelditzen ari<br>direla.”                                             |                                                                                                 |                |                                                                           |
| “Baztertu behingoz! Ikus<br>dezatela ez ditugula<br>hemen nahi.”                                                                                                                           |                                                                                                 |                |                                                                           |
| “Ez fidatu. Eta zabaldu<br>hau, guztiek jakin dezaten<br>nolakoak diren.”                                                                                                                  |                                                                                                 |                |                                                                           |

## 2. zatia: azken emaitza

Gorrito-diskurtsoei eta kantzeldazioaren kulturari aurre egiteko "zaintzaren etika" darabilten eduki digitalak ekoitzi behar dituzte ikasleek (bideoak, hariak, infografiak).

- Helburua: sare sozialetako polarizazioari, gorrito-diskurtsoei eta kantzeldazioaren kulturari aurre egiteko argudio gisa "zaintzaren etika" darabilten eduki digitalak ekoiztea.
- Metodologia: proiektuetan oinarritutako ikaskuntza eta elkarlana (komunikaziorako rolak: gidoigile, diseinatzaile/editore, dokumentalista, bozeramaile).

### 1. Gaien aukeraketa eta "Lederachen lupa"

Sareetan gorritoaren eta desinformazioaren jomuga bihurtzen diren gai jakin batzuk aukeratuko dituzte taldeek (adibidez, arrazakeria/migrazioa, transfobia/LGTBIfobia, lodifobia, edo gazteen estigmatizazioa). Lederachen "eraldaketaren lupa" erabilita, hauek identifikatu behar dituzte:

- Azala: zer irain edo kantzeldazio-dinamika ikusten dira pantailetan?
- Egiturazko erroa: zer beldur, aurreiritzi edo alborapen algoritmikok hauspotzen dute gorrito hori?

### 2. "Zaintzaren etika" aplikatzea

Diseinatu aurretik, edukiari dagokion "Zaintzaren manifestua" idatzi behar du taldeak. Ikuspegi horri hartzeko, hiru arau zorrotz bete behar ditu argitalpenaren gidoiak:

- Humanizatu, eta ez seinalatu: ez zaie eraso egingo gorrotoa hasi zuten pertsoneri, eta ez dira ezereztu edo kantzelatuko; argumentua desmuntatuko da, estrukturaliki.
- Hauskortasuna baliozkotu: diskurtso horrek pertsona errealei nola eragiten dien erakutsi (enpatia sustatuz).
- Irteera bat eskaini: mezuak ez du aurrez aurrekoak sortzeko izan behar ("haiek baino hobeak gara"); aitzitik, komunitatean hausnartzeko gonbita egin behar du ("sareetan elkar zaintzea bizitza errealean ere elkar zaintzea da").

### 3. Ekoizpena, aukeratutako formatuan

IDUren esparruko jarraibideak betez, talde bakoitzak bere gaitasunen arabera hobekien doakion formatua aukeratuko du:

- A aukera (Bakearen Hariak): ondo zehaztutako argumentuaren haria (X, Threads edo antzeko plataformetarako), datu kontrastatuak eta infografiak erabiltzen dituen lasai baina zorrotz, gezurrezko gorroto-mezu bat desmuntatzeko.
- B aukera (txerto digitalak): sare sozialetako iruzkin erasokorreari erantzuteko indarkeriarik gabeko komunikazioa darabilten bideo laburrak (TikTok/Reelak). Zuzeneko eduki laburrak, iruzkin oldarkorren aurrean “antidoto” gisa balio dutenak.
- C aukera (inpaktu-infografia): gorrotoaren edo gazteriarekin lotuta aukeratuko gaiaren inpaktu psikologikoa laburtzen duen pieza bisual bat Canvan edo Geniallyn, seguru nabigatzeko zenbait jarraibide emango dizkiguna.

## Aniztasunari erantzuteko neurriak

Ikasegoera honen diseinua “tratu onean” eta “ingurune seguruan” datzan ikuspegi inklusibo batean oinarritzen da; hutsegitea ez da zigortzen, eta, aitzitik, modu konstruktiboan kudeatzen da, ikaskuntza-prozesuaren parte naturala den aldetik. Sentsibiltate handiko gaiak lantzen direnez (gorroto-diskurtsoak, jazarpen digitala edo gatazka geopolitikoak), aldamio-egitura afektibo eta kognitiboa lehenesten dira, ikasle guztiak babestuta sentitzen direla bermatzeko, guztiak beren berezitasunekin.

Batxilergoko ikasgelaren aniztasunari sistematikoki erantzuteko, IDU jarraibideetan oinarritutako neurri hauek aplikatu dira:

### A. Inplikatzeko hainbat modu

- Garrantzia eta balioa optimizatzea: bake positiboari eta IGKri buruzko eduki teorikoak beren eguneroko bizipen digitalekin (sare sozialak) lotzea, ikasleen benetako interesa areagotzen baitu horrek.
- Lankidetzeta eta komunitatea indartzea: eztabaidatzeko jarduerak, bitartekotzako simulakroak eta edukien sorkuntza ikaskuntza kooperatiboaren bidez antolatzen dira, rola zehatz definituz. Gizarte-interakziorako zailtasunak dituzten ikasleek (autismoaren espektroko nahasmendua edo muturreko herabetasuna dutenak) beren indarguneetara egokitutako rol batzuen bidez parte hartu dezakete horrela (datuen analista gisa, esaterako, edo diseinatzaile grafiko gisa).
- Hutsegitearen aurrean ingurune segurua izatea: indarkeriarik gabeko komunikazioko tailerretan eta bitartekotzako simulazioetan, arau zehatz hau ematen da: "formulan huts egitea da hura ikasteko lehen pausoa". Iritzi edo baloraziorik ematen ez den laborategi bihurtuko da horrela ikasgela.



### C. Egiteko eta adierazteko modu ugari

Aukera zabala ebaluaziorako produktuetan: "Bihurtu dezagun biral bakea" kanpainaren esparruan edukiak lantzerakoan, azterketa idatziaren edo ahozko azalpen zurrunen erabilera hutsa albora uzten da. Ikasleek ikasi dutena nola adierazi aukeratu dezakete, beren gaitasun eta talentuen arabera:

- Idazmena: testu-sareetan argumentuen hariak idaztea.
- Adierazpen bisuala/artistikoa: infografiak, kartelak edo baliabide digital dinamikoak diseinatzea.
- Ikus-entzunezko adierazpena eta adierazpen zinestesikoa: bideo laburrak grabatzea (TikTok, Reel eta horrelakoetarako) edo ikasgelako dramatizazioa.
- Mailaz mailako lagungarriak (aldamio-egitura): hizkuntza-egituraketan zailtasunak dituzten ikasleentzat, indarkeriarik gabeko komunikaziorako aurrez zehaztuta dauden egitura gramatikalekiko zenbait txantiloi prestatu dira ("Ikusten dudanean [egitatea]... sentitzen dut [emozioa]...").

### D. Egokitzeko neurri espezifikoak

- Goi mailako gaitasun intelektualak dituzten ikasleentzat: gomendiozko algoritmoen buruzko ikerketa teknikoak gidatzea proposatuko zaie, adimen artifizialak eta machine learning delakoak jokabide sozial modernoak nola modelatzen duten aztertuz eta horretan sakonduz.
- ADHN duten ikasleentzat edo arreta jartzeko zailtasunak dituztenentzat: sekuentzia didaktikoko zeregin konplexuak zatikatu egingo dira, epe laburreko helburuak dituzten pauso txikiak bereiziz (adibidez, "1. pausoa: iruzkina aukeratu; 2. pausoa: gertatua hauteman; 3. pausoa: emozioa idatzi"). Saiotzen, txandakatu egiten dira eztabaida aktiboko uneak eta gailuetako lan teknikoak, estimulazio maila egokiei eusteko.

### 5. Ebaluazioa

Jarduera honen ebaluazioa ez datza ezagueren barneratzean soilik; aitzitik, ikasleak bere jokabideaz gogoeta egiteko, bere erabakietan taldeak duen eraginaz jabetzeko eta egiten duenak beste batzuegan dituen ondorioez ohartzeko zer gaitasun duen ere jartzen du jomugan. Nork bere burua ezagutzea, pentsamendu kritikoa eta erantzukizun pertsonala ere sustatzen ahalegintzen da, parte-hartze kontzienteagoa, enpatikoagoa eta errespetuzkoa indartuz, bai aurrez aurreko inguruneetan eta bai ingurune digitaletan.

### 5.1. Ebaluaziorako eta kalifikaziorako tresnak

Ikasegoeraren kalifikazio globala hiru bloke handitan banatzen da: heteroebaluazioa, % 40 (irakaslea), koebaluazioa, % 30 (parekoen artekoa) eta autoebaluazioa, % 30 (banakakoa):

#### 5.1.1. Ebaluazioa

- Kanpainaren paper-zorro digitala: paper-zorro digitalak (hainbat tresnatan, hala nola Google Sites-en, Padlet-en edo ikaslearen koaderno digitalean) etengabeko aurrerabidearen ebidentzia jasotzen du. Azken produktuak biltzeaz gain ("txerto digitalak" eta infografiak/bideoak), ikerketaren aurreko faseak ere jasotzen ditu (Sudango edo Haitiko gatazken mapak, gorrotoaren algoritmoaren zikloaren azterketa eta IGKren zirriborroak).

#### Ebaluazio-errubrika

| Ebaluazio-irizpideak/konpetentziak                           | Gutxiegi (1-4)                                                                                                                  | Garatzen (5-6)                                                                                                     | Oso ongi (7-8)                                                                                                                 | Ebaluazio-irizpideak/konpetentziak                    |
|--------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|
| <b>Zorroztasuna egiturazko analisian (Lederachen lupa)</b>   | Ikusitako indarkeria deskribatzera mugatzen da, atzean dauden arrazoiak edo datu geopolitikoak aztertu gabe.                    | Gatazken faktore ekonomiko edo sozialen bat identifikatzen du, baina azaletik edo loturarik egin gabe.             | Argi aztertze ditu egiturazko erroak (baliabideak, genero-arrakala), iturri fidagarrietan oinarrituta.                         | Zorroztasuna egiturazko analisian (Lederachen lupa)   |
| <b>Inpaktu digitalaren eta kontranarratibaren eragina</b>    | Sortutako edukiak nahasmen handiagoa eragin dezake, laua da edo aurrez aurrekoak eragiten dituzten dinamikak errepikatzen ditu. | Bakezko mezu bat da, baina ez du indarririk bisualki edo argumentuen aldetik gorroto-diskurtsoari kontra egiteko.  | Pieza erakargarria da, aurreiritzi bat desmuntatzen du datuak emanez, eta aukera eraikitzaileak eskaintzen ditu eztabaidarako. | Inpaktu digitalaren eta kontranarratibaren eragina    |
| <b>Tresna teknologikoen eta irisgarritasunaren erabilera</b> | Formatu zurrunk, ulermena erabat zailtzen duten diseinu- edo idazketa-arazoekin.                                                | Teknologikoak oinarritzko mailan erabiltzen ditu, multimedia-aukerak edo IDUen gutxieneko irizpideak baliatu gabe. | Produktua garbia da estetikoki, ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen ditu, eta publikoaren aniztasuna errespetatzen du.      | Tresna teknologikoen eta irisgarritasunaren erabilera |

### 5.1.2. Parekoen arteko koebaluazioa: elkarrizketa-zirkuluak

Azken saioan, elkarrizketa-zirkulu formatuan erakutsiko dira "txerto digitalak" eta kanpainako edukiak. Espazio horizontal honek aukera ematen die ikasleei beren ikaskideen lana ebaluatzeko, modu konstruktibo batean, asertibotasunean eta elkarren errespetuan oinarritutako koebaluazio-errubrika bat erabiliz horretarako.

Elkarrizketa-zirkuluetarako koebaluazio-errubrikak:

Talde bakoitzak beste talde bat ebaluatuko du, ondorengo matrizea erabiliz eta feedback positiboa sustatuz:

| Ebaluatuko den dimentsioa       | Maila baxua                                                                                                       | Maila ertaina                                                                                       | Maila altua                                                                                                                                  |
|---------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IGKren aplikazioa</b>        | Ez dira ikusten indarkeriarik gabeko komunikazioaren lau pausoak. Erantzuna erreakziozkoa edo zigor-izaerakoa da. | Behaketa eta sentimendua hautematen dira, baina azken eskaera ez dago argi edo ez da zehatza.       | Formula osoa aplikatzen du (egitateak, emozioa, beharra, eskaria), bazez eta asertibotasun osoz.                                             |
| <b>"Tratu onaren" ikuspegia</b> | Edukiaren tonuak iruzkin oldarkorra egin duen pertsona epaitu, etiketatu edo ezereztu egiten du.                  | Tonua zuzena da, baina defentsan jartzen du indar osoa, eta ez guztion ingurune digitala zaintzean. | Sendo eta lasaitasunez desmuntatzen du argumentua, harian sartuta dauden pertsona guztien duintasuna zainduz.                                |
| <b>Ekarpen kritikoa</b>         | Ez du gogoeta berririk egiten; aurrean daitekeen eduki bat da, eztabaida sozialari baliorik ez dakarkiona.        | Gogoetarako gonbita egiten du, nahiko emeki edo bakeari buruzko topiko azaleko samarretara joz.     | "Iragazki-burbuila" leherrarazten du, eta sare sozialetan norberak dituen joerak modu aktibo batean zalantzan jartzera behartzen du ikuslea. |

### 5.1.3. Autoebaluazioa

Ikasegoeraren nahitaezko itxiera gisa, eta "zaintzaren etikarekin" bat eginez, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-egunkaria egingo du bere paper-zorroan. Autoebaluazio hau estandar mekanikoetatik urruntzen da, eta ikaslea bere ardura digitalaren eta pertsonen arteko arduren aurrean jartzen du.

Nahitaezko gogoeta honako ardatz honen inguruan bideratzen da:

"Lagungarria al da jarduera hau gure eguneroko inguruneetan geure burua eta besteak zaintzeko?"

Ikasleentzako autoebaluazio-gida

Erantzunen sakontasuna indartzeko, ikasleek beren idazketa gauzatu behar dute, honako adierazle hauei erantzunez:

- Autozainketa: sare sozialetan nabilenean eta kontsumitzen dudanean edo tentsio handiko eztabaidetan parte hartzen dudanean, identifikatzen al dut noiz eragiten didan emozionalki? Zer euste-tresna (fisikoak edo emozionalak) aurkitu ditut ikasegoera honetan, toxikotasun digitalaren aurrean nire osasuna babesteko?
- Bestea zaintzea: aztertu al dut inoiz parte hartu dudan lintxamendu digital batean edo kantzelarioraren kulturean (zerbait eginez edo ez eginez, "like" sakatuz edo partekatuz)? Nola aldatu da iruzkinak egiteko nire modua, indarkeriarik gabeko komunikazioaren eredua ezagutu ostean?
- Komunitatearekiko konpromisoa: ulertzen al dut orain bakea, ez NBEn gobernuek sinatzen duten zerbait utopikoa bezala, baizik eta nire esku dudan eguneroko jarduera gisa (Malalaren edo Mandelaren erduei jarraituz), Interneteko probokazio bati gorrotoaren bidez ez erantzutea erabakitzen dudan bakoitzean?

## Gelako emaitzak partekatu nahi dituzu?

Bidaliezaguzu materiala (argazkia, bideoak, jardueraren laburpena) helbide honetara: [comunicacion@sedongd.org](mailto:comunicacion@sedongd.org).

*SED GGKEtik, gure kanaletan argitaratuko ditugu zuek bidalitako lanak, **bakea biral egiteko eta kanpainaren eragina ikusarazteko.***

## Ebaluatu materiala!

Bidaliezaguzu zure iruzkina **inprimaki** honen bidez.

*Kanpainaren eragina ebaluatzeko eta etorkizuneko ekintzetarako hobetzeko aukerak identifikatzeko eta baloratzeko soilik tratatuko ditu datuak SED GGKEak.*

